

ORDENANTZA FISKALA, IREKITZEKO LIZENTZIEN TASAK ARAUTZEN DITUENA

Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 180. artikuluan eta hurrengoetan, eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 100. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean ezarri da ordenantza hau.

Zergagaia

2. artikulua. Industri edo merkataritza establezimenduek, lasaitasun eta osasungarritasun baldintzak, baita haien funtzionamendu normala erregulatzeko indarra duten bertzelako arauetan ezarritako gainerakoak ere betetzen dituzten ala ez egiaztatzeko, irekitzeko lizentzia eman aurretik Udalak egiten dituen jarduera tekniko eta administratiboen ondorioa da zergagaia.

3. artikulua. Aitzineko artikuluan aurreikusitako ondorioak bete daitezten, irekitzeko lizentzia kasu hauetan beharko da:

- a) Jarduerak hasteko, establezimendua berritik paratzea.
- b) Establezimenduko jarduera aldatu edo handitzea, titularra aldatzen ez bada ere.
- c) Establezimendua handitzea eta bertan ordenantza honen 2. artikuluan ezarritako baldintzetan eragina duen bertze edozein aldaketa egitea, horren ondorioz baldintzak berriz egiaztatu beharko direla.

4. artikulua. Industri edo merkataritzako establezimendutzat hartuko dira bakarrik etxebizitza ez izateaz gain ondoko baldintza hauek betetzen dituzten eraikin edo instalazio guztiak, jendearendako irekiak izan edo ez:

- a) Enpresa, fabrikazio, artisautza, eraikuntza, merkataritza edo zerbitzuetako jarduera bati lotua egotea.
- b) Aipatu jarduera horiek egin gabe, haien lagungarriak edo osagarriak izatea, edo haietatik etekinak edo probetxamendua ateratzea.

Salbuespenak

5. artikulua. Ordenantza honetan araututako tasaren ordainarazpenean ez da inolako salbuespen edo hobaririk emanen.

Sujetu pasiboa

6. artikulua. Zergadun gisa tasaren sujetu pasiboak hauek dira: ordenantza honen 4. artikuluan aipatutako establezimenduren bat zuzenean ustiatzen

duten pertsona fisiko edo juridikoak eta, nortasun juridikorik izan gabe ere, unitate ekonomiko bat edo ondare bereizi bat osatzen duten entitateak.

7. artikulua. Zergadunaren ordezkioak izanen dira establezimendu edo lokal horien jabeak, eta horiek, behar balitz, egiten den edo egiteko asmo den jardueraren titularrei pasatzen ahalko dizkiete kuotak.

Zerga-oinarria

8. artikulua. Lizenziaren xede den lokalaren azalera izanen da zerga-oinarria.

Tributu-kuota

9. artikulua. Tributu-kuota kalkulatzeko, 1. eraskinean ezarritakoaren arabera dagokion tarifa aplikatuko zaio zerga-oinarriari.

Sortzapena

10. artikulua. Tasa eta ordaintzeko obligazioa sortuko dira zergagaia osatzen duen udal jarduera egiten denean.

11. artikulua. Establezimendua behar den lizentzia eskuratu gabe irekitzen baldin bada, tasa sortuko da establezimenduak behar diren baldintzak betetzen dituen egiaztatzeko udal jarduera egiten denean. Hori guztia, establezimendua irekitzeko baimena eman edo, irekiera baimendu ezina balitz, hura ixteko dekretatzeko ireki litekeen administrazio espedientea deusetan ukatu gabe.

Kudeketa arauak

13. artikulua. Lizentzia erdiesteko interesa duenak behar den eskabidea aurkeztuko du Herriko Etxean, egin beharreko jarduera(k) eta dagokion lizentzia fiskalaren epigrafea zehaztuko dituela; eskabidearekin batera, lokalaren alokairuaren kontratua edo erosketaren titulua, eta Zergen Kudeaketak likidazioa egiteko behar duen informazio guztia aurkeztuko du.

13. artikulua. 1. Udalak lizentzia eman ala ez erabaki arte, interesatuek zilegi izanen dute atzera egitea eta kasu horretan ariela lizentzia eman balitz ordaindu beharko zatekeenaren % 20koa izanen da. Lizentzia ematen ez bada, ariela berdina izanen da. 2. Lizentzia eman ondoren sei hilabete pasatzen baldin badira lokalak ireki gabe, edo ireki ondoren, berriz ixten badira sei hilabete baino denbora luzeagoz, lizentzia iraungitza hartuko da.

Arau-hauste eta zehapenak

14. artikulua. Iruzurtzat hartuko dira arau-hauste berezi hauek:

- a) Lokalak irekitzea behar den lizentzia erdietsi gabe.
- b) Zerga-oinarria zehazteko behar diren datuak gezurrezkoak izatea.

Bertzelako arau-hausteetarako ordenantza fiskal orokorrean xedatutakoari jarraituko zaio, edo bertzela, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta harekin bat datozen araei.

15. artikulua. Arau-hausteei dagozkien zehapenak, ordenantza fiskal orokorrean, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean eta harekin bat datozen arauetan gobernatuko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan aurreikusi ez den orotan, Udal honek onetsitako ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatutakoa aplikatuko da.

Bigarrena.-Ordenantza honek bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du.

1. ERASKINA

Tarifak

I. Epigrafea.-Jarduera sailkatuak.

I.1. 700 metro karratutik beheiko lokalak. Jarduera sailkatuagatik eta irekitzeko lizentziagatik aplikatu beharreko tarifak jarduerak hartzen duen eta guztira eraikirik dagoen azaleraren arabera ezarriko dira, hura garatzeko behar diren lokal osagarri guztiak barne. Likidazioa tarte hauen arabera egingen da:

Lokalaren azalera Jarduera sailkatua Irekitzeko lizentzia

50 m²tik beheiti 30.000 pta. 20.000 pta.

51tik 100 m²ra bitarte 40.000 pta. 25.000 pta.

101etik 200 m²ra bitarte 60.000 pta. 40.000 pta.

201etik 400 m²ra bitarte 90.000 pta. 60.000 pta.

401etik 700 m²ra bitarte 120.000 pta. 80.000 pta.

I.2. 700 metro karratutik goitiko lokalak.

Lokal mota honetan tarifa hauek aplikatzen dira,

jarduerak guztira hartzen duen azalera kontuan hartuz:

-Jarduera sailkatua: 180 pezeta/m².

-Irekitzeko jarduera: 120 pezeta/m².

II. epigrafea.-Jarduera kaltegabea irekitzeko lizentzia

Jarduera kaltegabeak egiten direneko lokalak irekitzeko lizentziengatik jarduera sailkatuak irekitzeko lizentzien ehuneko 50 ordainduko da.

III. epigrafea.-Irekitzeko lizentziaren aldaketa.

Aldatzeko espedienteetarako 10.000 pezetako tasa ezartzen da.

IV. epigrafea.-Irekitzeko lizentziaren eskualdatzea.

Jarduera baten titularra aldatzeko, lokalaren beste ezaugarriarik aldatu beharrik ez badago, 10.000 pezetako tarifa ezartzen da.

OBRA HONDAKINAK UDAL ZABORTEGIAN BOTATZEKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

1. artikulua. Ordenantza hau Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 122. artikuluan, urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Entitateen Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 93. artikuluan eta hurrengoetan eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluetan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean ezarri da.

2. artikulua. Zergagaia, obra hondakinak eta material inerteak, ez kimikoak ez organikoak, udal zabortegian botatzea da.

3. artikulua. Zerga ordaintzeko beharra obra hondakinak udal zabortegian botatzean sortzen da. Obra hondakinak bota aurretik, Udalean dagoen inprimakia bete beharko da, bota gogo diren kamioi hondakin eta tonak adierazteko. Beti ere, inprimakia sinatu egin beharko da.

Obra hondakinak egunero botatzen direnean eta aste bete baino gehiago irauten duenean, enpresak bidaien aitorpena aurkeztuko du astero Udalean, astean botatuko tona kopurua adieraziz, udal langileak daraman kontrolaz aparte.

4. artikulua. Obra hondakinak botatzeko baimena eskatzen duten pertsona edo entitateak izanen dira sujetu pasiboak, baita baimenik gabe botatzen duten pertsona edo entitateak ere. Botatzeko aitorpena sinatzen duena eskatzailezat hartuko da.

Entitate edo pertsona batek obra hondakinak botatzeko beste enpresa bat kontratatu eta aitorpena horrek sinatzen duenean, zein entitate edo pertsonaren izenean egiten duen adierazi beharko du bertan. Obra hondakinak botatzeko enkargua egiten duen enpresa izanen da obra hondakinak botatzen dituenaren ordezkoa, dirubilketa kontuetarako.

5. artikulua. Zuzenean sortutako obra hondakinak deusezteko zerbitzuari dagokionez, botatuko tona kopurua da zerga-oinarria.

6. artikulua. Eraskinean adierazi dira 1997an arautuko duten tarifak. Urtero berrikusiko dira tarifa horiek.

7. artikulua. Obra hondakinak bota eta modu egokian jarriko dira eta zanpatu edo sakanera bultzatuko dira.

8. artikulua. 1. Zabortegia erabiltzeagatik desegin edo hondatzen bada, onuradunak, behar den prezio publikoa ordaintzeaz gain, behartua egonen da berreraiki edo konpontzeko gastuen kostu osoa ordaintzera, eta horren zenbatekoa aldeztatik jartzera.

2. Kaltea konponezina bada, Toki Entitateak kalteordaina jasoko du, hondatutako ondasunen balioa edo egindako kaltearen ordaina, alegia.

Inoiz ere ez ditu barkatuko Toki Entitateak artikulua honetan aipatu kalteordain eta itzulketak.

9. artikulua. Prezio publikoa ordaintzeko beharra obra hondakinak botatzeko baimena ematen den unean sortuko da edo botatzen hasten denetik, baimenik gabe egiten hasi bazen.

10. artikulua. Arau-hauste larriak dira:

a) Baimenik gabe botatzea.

b) Material kimiko eta organikoa botatzea.

c) Zabor hondakinak botatzeko aitorpena ez aurkeztu edo okerreko datuekin aurkeztea.

d) Hondakinak ez zanpatzea.

11. artikulua. Arau-hausteei eta zehapenei dagokienez, ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Besteren ordeztatik aplikatuko da ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatutakoa.

Bigarrena.-Ordenantza honek bere testua oso-osorik

Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta Estatuko Administrazioak edo Foru Komunitatekoak Toki Entitateei, egintza edo erabakiak baliogabetu ditzaten, errekerimendua egiteko ahalmena erabiltzeko epea iragandakoan hartuko du indarra, eta ondorio juridiko osoak izanen ditu.

ERASKINA

1997an indarra izanen duten tarifak

-750 kg-tik 4 t bitarteko kamioiak: 1.370 pezeta kamioiko.

-4 t-tik 10 t bitarteko kamioiak: 2.643 pezeta kamioiko.

-10 t-tik 20 t bitarteko kamioiak: 3.965 pezeta kamioiko.

-20 t-tik gorako kamioiak: 6.000 pezeta kamioiko.